

Arrasate

P R E S S

1997ko
azaroak 7
389. zenb.

Herri aldizkarien
artean Euskal Herri
mailako publizitatea
eskuratzeko
zerbitzua sortu dute:
GunePress izenekoa.
ARKOk izango du
gestioaren ardura

GunePress

IRITZIA: DORITA MURGIA • KIROLAK: ALAZNE RZ. DE MUNAIN
IKUSPEGIA: MATILDE SAINZ • KULTURA: AED LEHIAKETAK



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz, 35.....☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17,1 Ezk.....☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....☎79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTROA Iturriotz, 7 Bis.....☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7, 1º.....☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5.....☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B.....☎77 12 63

DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1.....☎79 72 16
- CRISTINA GARCIA. (Udalaitz Mediku-Zentroa) Ferrerías, 56 behea.....☎79 44 22

ERREABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. Zaldibar, 4-1.....☎77 14 72

FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE. ERREHABILITAZIO ZENTROA Olarte 43 Bis.....☎77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTROA Erdiko kale, 37.....☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA Ignacio Zuloaga, 10.....☎79 48 77

MASAILARIAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk.....☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai).....☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea.....☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6.....☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1.....☎79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2.....☎79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lumbalgia) Azoka kalea, 4.....(Mobila) ☎989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea.....☎79 20 18

PODOLOGOAK

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea.....☎79 53 63

PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10.....☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA Ignacio Zuloaga, 10.....☎79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTROA Erdiko Kale, 37.....☎79 79 46

REUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1.....☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1.....☎79 72 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56.....☎79 44 22

Zaldibarko futbitoan jendea falta?

Dakigunez, Zaldibar Arrasateko erdigunean dago eta kanpotik datorren bisitariari deigarria irudituko zaion txokoa da. Badakigu ez duela aparteko ezer, baina astegunean datorren bisitariari ez zaio ahaztuko herriko txoko hau haur jolastiez gainezka egoten baita arratsaldeko ordu gutzietan. Aldiz, gure bisitaria larunbat edo igande goizean etorriko balitz, sekulako giroa topatuko luke bertan, gazteek antolatuta-koto futbito txapelketa dela eta.



Matilde Sainz

Agirian da, gure herriko gazteek kirolaren aldeko apustua egin dutela ekintza honetan parte hartuz. Gainera, zenbait kuadrilen inizatibaz sortutako ekintza izateak egiazkotasun handiagoa ematen dio txapelketari.

Irakurleekin batera egin nahi dudana gogoeta

“Irakurleekin batera egin nahi dudana gogoeta labur honen izenburua irakurtzen duenak pentsa lezake: nor falta da?”

labur honen izenburua irakurtzen duenak, berriz, pentsa lezake: nor falta da, ba? Jendez gainezka egoten da, eta! Nahi duen guztiak parte hartzen du, baina!

Eta arrazoizkoa da horrela pentsatzeak, jendez gainezka egoten baita. Arrasateko gazteen erantzuna txalogarria da. Baina, herritarren aniztasunean pentsatuz, seguruenek, ez dira hemen agortuko arrasatearren iritzi posible guztiak. Gogoetan harantzago jotzen duenak zer gehitu ere izango du, seguruenik.

Adibideak jartzekotan, bat datorkit burura, pentsa dezagun pertsona hau ezinduen gaietan beste zenbait baino sentiberago dela; zer esango luke, orduan? -kontxo, Arrasaten zenbait gazte ezindu ere badago! Zergatik ez integratu hauek ere futbitoko txapelketan?-. Eta,

jakina, honi ere arrazoi osoa aitortu behar! Gainera, integrazioaren gaia geroz eta garbiago ikusten dugu.

Hipotesien jolasarekin jarraituz, jo dezagun beste zenbaitek arrasatear gazte kirolarien artean neskak- botatzen dituela faltan, eta, benetan, gazte kirolarien artean neskak ere ikusi nahi izango lituzkela. Pertsona honi zera esango genioke, nesken mailako futbito txapelketa egon badagoela, Txatxilipurdik antolatuta, gainera. Gertatzen dena da, txapelketa hau martxotik ekaina bitartean ospatzen dela, eta, Zaldibarren tokirik ez dagoenez, San Viator eta S.F. Xabier Ikastolan jokatzen dutela. Hori bai, azken partidua Zaldibarren izaten dela.

Gogoetarekin bukatzeko, edo hasteko, esango genuke gazteen zati inportante bat falta dela Zaldibarren. Bestalde, gure herriko neskei esan, ez dutela mutilek aukeratutako kirola aukeratu behar, futbitoa, alegia. Zergatik ez saskibaloia edo eskubaloia? Zuek ikusi arrasatear neska gazteak, zuena da erantzuna, baina, benetan, Zaldibarren protagonista rolean faltan botatzen zaituztegu!



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardor Kortabarria. **Kazetariak:** Ibarro Zubillaga, Marian Porcoel, Pabli Montero. **Publizitateak:** Kaittin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 25) **Disenatzailea:** Goro Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Elcheberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibarro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurrata, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Saila, ASA Taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agomia, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaola, Jaki Luengo, Maite Barrena. **Banasketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. **Logo-Cordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

383. zenbaki honetan

1997ko azaroaren 7an

| | | | | | |
|-------------------------|-----|--------------------------|-------|------------------------|-------|
| Asteko agenda..... | 4/5 | Astearren erreposoa..... | 9 | 30 galderatan..... | 25 |
| Irakurlea idazle..... | 6 | Orain eta hemen..... | 10/11 | Kulturaren txokoa..... | 26/27 |
| Inkesta..... | 7 | Txutxumutxuak..... | 13/14 | Azoka plaza..... | 28/29 |
| Euren ikuspuntutik..... | 8 | Kirolak jokoan..... | 16/19 | Ikusi eta entzun..... | 30 |

Ikuspegia

Matilde Sainz.....3

Euren ikuspegitik

Dorita Murgia.....8

Kirolak jokoan

Alazne Ruiz de Munain.....16

Aurrez aurre

Lupe Jara.....20/21

Kulturaren txokoa

AED lehiaketek markak hautsi.....22

Asteko gaia

GunePress, publizitate zerbitzua.....17/19

Herri aldizkariak normalean herriko negozioetako publizitatea eskuratu ohi dute. Esparrua zabalduta nahian aldizkariaren artean publizitate zerbitzu berria sortu dute: GunePress.



7

ostirala

■ ZINEA

Double Team. Alai zinemán 7etan eta 9.30etan.

■ BONBA TALDIEN
BATZAR OROKORRA

Monterronen arratsaldeko 6.30etan.

■ EUSKADIKO ORKESTRA

Euskadiko orkestra Amaia antzokian arratsaldeko 8etan. San Juan de Dios ospitalak antolatuta.

8

larunbata

■ ZINEA

Contact. Alai zinemán 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ NAROA
ENEKOTEGIEN
KONTZERTUA

Naróa Enekotegi eta Aintzane Bazterretxea pianojolearen kontzertua Aita Mennin arratsaldeko 4.30etan.

■ GAZTAIN ERRE JANA

AEDk antolatuta gaztain erre jana arratsaldeko 6etatik 8ak arte Herriko plazan.

■ URBIL ETA TXOMIN
ARTOLAREN KONTZERTUA

Amaia antzokian 8etan. Sarrera: 500 pta. Aita Menni ospitalak antolatuta.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Brutal Thin Algecirasko trash taldearen kontzertua Gaztetxean gaueko 9etan.

9

igandea

■ ZINEA

Contact. Alai zinemán 5etan, 7.30etan eta 10etan.

11

asteartea

■ ZINEA

Contact. Alai zinemán 7etan eta 9.30etan.

■ MAHAINGURUA
MONTERRONEN

Gaia: *Zer suposatzen du ume bat apadrinatzeak?* Hizlariak: Begoña Zangitu, ROK-PAko arduraduna Euskadin eta Inazio Galdos, misiolaria Indian. Monterronen arratsaldeko 7etan. Arrasateko Harreman taldeak antolatuta.

10

astelehena

■ ZINEA

Contact. Alai zinemán 7etan eta 9.30etan.

■ AUTODEFENTSA
IKASTAROAREN HASIERA

Emakume sailak antolatuta ikastaroa San Frantzisko Xabier ikastolan emango da. Klaseak astelehenetan eta ostegunetan arratsaldeko 5etatik 7ak arte. Dohainekoa.



AMI OINETAKOAK

oinetako autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:

Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE



Juan Carlos Guerra
enparantza
Tfnoa: 79 18 39
ARRASATE

Mitarte, 18
Tfnoa: 79 53 51
ARETXABALETA

12

asteazkena

■ BATZAR INFORMATZAILEA

Arrasateko Otoitz taldeak otoitz eta bizi tailerra antolatu du. **Gidariak:** Enrike Larrañaga eta Maite Vallejo. **Batzar informatzailea** Abade etxean arratsaldeko 7etan.

■ DIAPOSITIBA EMANALDIA

Jose Ramon Eskibelek hormako eskaladari buruzko diapositiba emanaldia eskainiko du arratsaldeko 7etan Aretxabaletako Loramendi elkarteak.

13

osteguna

■ ZINE KLUBA

Foken uharteko sekretua.
Zuzendaria: John Sayles. **Amaia antzokian** gaueko 9.30etan. **Sarrera:** 400 pta eta **Gazte Txartelarekin** 350 pta.

■ HITZALDIA UDAL LIBURUTEGIAN

Gaia: Nerabeekin komunikazioa hobetzen. **Hizlaria:** Maite Garcia, haur psikologa. **Haur Liburutegian** arratsaldeko 7.30etan.

■ ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN

Azaroaren 14an **Tanttaka taldeak** "Shakespeare osoa (Gutxi gorabehera)" antzelana eskainiko du **Amaia antzokian** gaueko 10.30etan. **Euskarazko emanaldia.** **Sarrera** 800 pta eta **Gazte Txartelarekin** 600 pta.

■ NORBERA ZAINTEKO IKASTAROA

Arrasateko Yoga Elkarteak norbera zaintzeko ikastaroa antolatu du. **Azaroaren 18an** hasiko da eta klaseak astearte eta ostegunetan emango dira **arratsaldeko 7.15etatik**

8.30ak arte. Bertan besteak beste luzatze ariketak, yoga motak, masaia eta automasaia, txinako ariketak eta erlaxazioa irakatsiko dira. **Horrez gain,** pentsamendu eta teknika naturisten eta herri medikuntzaren errepasoa egingo da. **Informazio gehiagorako** deitu **77 01 33 zenbakira.**

■ IKASTARO DESBERDINAK

Famili eta Gizarte hezkuntzarako zentroak hiru ikastaro antolatu ditu. **Masaia ikastaroa** ostiralean emango da **goizeko 10etatik 12ak arte.**

Gitarra ikastaroa ostiralean arratsaldeko 5.30etatik 7ak arte. **Harizko lanen ikastaroa** ostegunetan goizeko 9.30etatik 11ak arte. **Informazio gehiago** lokalean.

■ MARRAZKI ETA PINTURA IKASTAROA

Azaroaren 17tik aurrera **Amaia Bengoa** irakasleak emango du **Monterronen.** Klaseak ostegunetan arratsaldeko 5etatik 8ak arte. **Larunbatetan** goizeko 10etatik ordubata arte. **Talde mugatuak.** **Izen ematea** azaroaren 14ra arte **arratsaldeko 5etatik 7ak arte** **Monterronen.**



■ GAZTAIN ERRE JANA

Gazta erre jana antolatu du **AEDk** zapatu honetarako. **Arratsaldeko 6etatik 8ak arte** trikitilariak, txalapartak eta hankapaluak egongo dira giroa berotzen. **Giroa ezezik** gorputza berotu nahi duenarentzat berriz, danbolinean erretako gaztainak eta nahi beste sagardo.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 7

- Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin.
- Gauez: Mozos. Bergara.

Larunbata 8

- Gaueko 10ak arte: Amezu. Santamaina.
- Gauez: Camacho. Bergara.

Igandea 9

- Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
- Gauez: Camacho. Bergara.

Astelehena 10

- Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.
- Gauez: Puy. Bergara.

Asteartea 11

- Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
- Gauez: Guallar. Bergara.

Asteazkena 12

- Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.
- Gauez: Estella. Bergara.

Osteguna 13

- Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola.
- Gauez: Mozos. Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

| | |
|---|----------|
| Arrasateko Eskualde-Ospit. | 79 53 00 |
| Igualatorria | 79 05 00 |
| Santa Agedako Ospitalea (gizonak) | 79 39 00 |
| (emakumeak) | 79 44 11 |
| Buru osasunerako zentrua | 79 90 11 |

Gurutze Gorria

| | |
|-------------------|----------|
| Bergara | 76 55 76 |
|-------------------|----------|

DYA

| | |
|--------------------|----------|
| Antzuola | 78 71 57 |
|--------------------|----------|

Anbulatorioak

| | |
|--|----------|
| Arrasate (Larrialdiak) | 79 13 57 |
| • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria | 77 03 46 |
| • Espezialitateak | 77 05 78 |
| | 77 12 64 |
| | 78 08 52 |
| | 79 98 58 |
| | 79 74 58 |
| (945) 45 51 16 | |

Anbulantziak

| | |
|----------------------------------|----------|
| Gipuzkoako ambulanziaz | 45 87 44 |
|----------------------------------|----------|

Udaltzaingoa

| | |
|------------------------|----------|
| Ohati | 78 04 11 |
| Bergara | 76 14 69 |
| Arrasate | 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 79 10 52 |
| Eskoriatza | 088 |

Ertzaintza

| | |
|--------------------|----------|
| Arrasate | 79 71 99 |
|--------------------|----------|

Suhiltzaileak

| | |
|--|----------|
| Udal taldea | 79 09 00 |
| Udal taldeko suhiltzaile burua | 79 20 72 |
| Zubillagako Eskualde-Parkea | 088 |

Matxurak

| | |
|-------------------------------------|--------------|
| Urak (udal zerbitzua) | 79 09 00 |
| Elektrizitate (Iberduero) | 12 01 62 |
| Gasa | 900 40 05 23 |
| | 79 78 44 |
| | 79 76 78 |

Garraioak

| | |
|------------------|--------------|
| Taxiak | 79 12 22 |
| PESA | 902 10 12 10 |

Hirugarren adinekoendako zentruak

| | |
|-------------------------------------|----------|
| Iturribe Egoitza | 79 72 11 |
| Abaroa jubilatuen egoitza | 79 81 57 |

Kontsumitzailearendako informazioa

| | |
|---------------------|----------|
| KIUB-OMIC | 79 51 55 |
|---------------------|----------|

Monterongo liburutegia

| | |
|---------------------|----------|
| Monterron | 77 01 05 |
|---------------------|----------|

Irratia

| | |
|----------------------------|----------|
| Arrasate Irratia | 79 58 77 |
|----------------------------|----------|

ARRASATEKO HEDADURA DELA ETA

Astebeteko atzerapenez irakurri dut urriaren 26ko El Diario Vasco egunkarian datorren urtean argitaratuko dela Arrasateko mapa topografikoa ("Un nuevo mapa topográfico de todo el término municipal verá luz en 1998"). Dirudienez, kolorezko mapa izango da eta 70x100 neurrikoa. Hor esaten denez, eskualdean orain arte Antzuolak bakarrik du honelako mapa bat. Eta hain zuzen ere duela egun gutxi batzuk bidali didate mapa hori (4 ibilbide eta guzti dituen), eta esan behar dut bikaina eta eredutzat hartzeko modukoa iruditu zaidala. Beraz, maparen ideiarri buruz esan dezakedan gauza bakarra da beharrezkoa eta oso interesgarria dela.

Bada, dena den, kontutxo bat atentzioa eman eta apurtxo bat kezkatzen naue-na, nahiz eta agian askori ez oso garrantzitsua iruditu. Artikuluan udalerriaren hedadura 34km² dela esaten da, eta ziurrenik datu hori zuzena izango da, baina iturri guztiek ez datoz bat honetan. Eta horietako gutxi batzuk aipatuko ditut. Jose Letonak eta Juan Leibarrek 1970ean argitaratutako *Mondragón* liburuan 33,600 dakarte; Deba Garaiko Udal-Elkarteak 1987an argitaratu zuen *Deba Garaiko izadi-mapa-n* 33; Iñigo Ramirez de Okarizen Arrasate Gure Herria (1993, 1995 (2.ed.))

liburuan, 34,20; Arrasateko Udalak 1995eko ekainean ateratu zuen Arrasateri buruzko 23 orrialdeko lantxoan 34; hauetatik askotxo alden-duz, duela 6 bat urte Deustuko Unibertsitateko Deiker institutuak (institutu honek Arabako eta Gipuzkoako Normalkuntza Toponimikoa egiteko ardura izan zuen eta ahozko bilketak kilometro karratuko ordaintzen zituen) apenas 31 km²; bide beretik, eta ziurrenik oker, Arrasateko Toponimia liburuan (1996an argitaratua, eta ez hasieran aipatu artikuluan bi aldiz esaten den 1994an) "gutxi gora-behera 31"; e.a.

Beraz, hau gutzia ikusirik, gustura entzun edo irakurriko nuke kontutxo honi buruzko adituen iritzia eta, ematerik baldin badago behintzat, Arrasate udalerriko hedadura zehatza.

Bestalde, eta bukatzeko, Hiru errege mahaia-k 2.428 m. dituela ados bagaude ere, geure herriko altitudeari buruzko neurri desberdina (210,211...) irakurri izan ditut inoiz.

Txipi Ormaetxea

1980KO AZAROAK 6

Pedro Guridi Arozena gazte arrasatearra, bere herriarekiko sentsibilitateak bultzatua, Euskadi eta Askatasunen militatzera eraman zuen.

Konpromezu honek,

espainiar zaldunez bete zuen bere etxea azaroaren 6ko gau hartan.

Geroztik bere bizitza bel-durrezko istorio batean bihurtuz, 10 gau eta eguneko torturak guardia zibilaren esku, Audientzia Nazionalak trasladatua, Carabanchel, Soria, Herrera de la Mancha, Alcala, Salto del Negro eta orain Murtzia, hainbat euskal militante zanpatu dituen kartzelak ezagutaraziz.

Dagoeneko 17 urte pasa dira eta Pedrotxok kartzelan bahitua jarraitzen du, berari ezarritako kondenaren 3/4a beteta izan arren. 17 urte luze hauetan jasandako tratu basatiak, bere eskubideak aldarrikatzeko borroka luzeak (gose greba oso luzeak, txapeoak...) eta guzti hau mediku asistentzia egokirik gabe burutzeak, gaur egungo egoera larrira eramatu du.

Pedrotxo, bere hernia diskalaren ondorioz ebakuntza baten beharrean aurkitzen da. Ebakuntza hau ezin izango da burutu Pedrotxo bere herri-tik 900 kilometrora dispersatua dagoen bitartean.

900 kilometro hauek dira bere lagun eta senitartekoen jasan behar duten zigorra laguna edo semea 40 minutuz ikusi ahal izateko. Hainbeste entzun den "demokrazia" eta "demokratok", ez al duzue erantzunkizunik egoera latz honen aurrean? Nork edo zerk babesten du egoera hau?

Pedrotxo herrira, orain!
Arrasateko Amnistiaren aldeko Gestora

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa


79 42 22

Jili Jili

Martxa eta estilo handiko erropa


Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Zerbait badakizu Euroaren gainean?




Urtzi Bakedano
(16 urte)
Ikaslea

Gauza gutxi. Beste txanpon bat dela eta ehun eta piku pezetako balioa duela. Gai-nontzean, ideiarik ez.




Carlos Morgen
(71 urte)
Jubilatua

Gutxi. Badakit txanpon amankomuna dela, 99an jarri-ko dela indarrean, gutxi gora-behera 160 pezetako balioa duela, eta 2002. urtean beste txanponak desagertuko direla.



Jose Manuel Martin
(24 urte)
Ikaslea

Europa osorako moneta bakarra izango dela. Ez dela kolpean sartuko, lehenbizi bankuetako eragiketetan sartuko dela eta 2003. urterako erabat sartuko dela indarrean.



Iñaki Landa
(55 urte)
Ekonomilaria

Bai, zerbait badakit, ekonomista naiz eta. Uste dut jantzita nagoela Euroaren kontuetan.



Idurre Salegi
(15 urte)
Ikaslea

Zer da, txanponen bat? A, bai. 2000. urtean txanpon bakarra egongo dela. Ez direla egongo durokoak, bost durokoak eta horrela.



Loli Monroy
(33 urte)
Langabezian

Bai, txanpon bakarra. Uste dut informatuta nagoela.



Mari Carmen Renda
(19 urte)
Langilea

Ez. Txanpon berria dela, besterik ez.



Elena Gómez
(29 urte)
Langilea

Oso gutxi. Guztiontzako txanpon amankomuna izango dela eta hasieran prezioekin eta nahastea sortuko dela. Uler-tzeko oso zaila da.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

EXTRA
Deba Garaiko Kazeta
Asteartero, ostegunero eta larunbatero
kioskoetan salgai.
Nafarroa etorbidea, 23 • 218 postakutxatila
Tel.: 79 82 68 • Faxes: 79 43 03

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

USTEAK USTE

Agur ta banoa

Azkeneko uzten dut izenburua gehiengotan, idazten jartzen naizenean ideia nagusi bat bai, baina askotan ez dudalako jakin izaten hurrengo lerroak nora eramango nauen. Lerro hauek agur esateko aprobetxatu nahi ditudanez, lehenengotik jarri dut gaur izenburua, beste lan batera noa eta. **Kitto! esanda!**

Bateren bat poztuko zen honez gero, besteren bat tristetu eta gainerakoei inporta ez. Edozein modutan irakurle, mila esker eta zorionak astero astero fin fin hor izateagatik, nahiz eta askotan ados egon ez hemen idatzitakoekin. Hori da jendaurrean lan egiten dugunon patua eta aldi berean bertutea, nekez izango gara denen gustoko edo disgustoko. Ez noa orain horren inguruko teorizaziorik egitera, gauza bakarra esan gura neuke: **ARKOren informazio tresnen ardura izan dudana bitartean, gauzak ahalik eta ondoan egiten saiatu naizela; asmatu edo ez, borondatea behintzat izan dugu.**

Eta dugu aditza erabili dut, buru moduan neu agertu arren, ondoan jende zoragarria izan dudalako, lankide baino lagun. Hauei bereziki eman nahi diet eskerrak. Pozik ikusiko zintuzketet biharko edo etziko lanen batean, elkarrekin berriro. Orain, agur ta banoa!

Beñardo Kortabarria



Famili Astea

Dorita Murgia

Azaroaren lehen aste honetan, astelehen, astearte eta asteazkenean, Montterongo kultur etxean hiru hitzaldi izan ditugu Donostia-ko elizbarrutiak izendatutako *Famili Astearen* ospakizunen barruan. Honekin, jadanik bost urte dira Arrasaten ospatzen dela aste hau, eta denbora honetan familian eragina duen hainbat gai azaldu digute hizlari aditu batzuk.

Oraingoan hiru senar/emazte gazte izan dira gurekin, eta "Ezkontza: elkar bizitzarako proiektuaren gauzatze dinamikoa" lemapean, teoriiaz gain, beren esperientziaz ere mintzatu dira. Benetan txalagarria agertu diguten zintzotasuna. Hemendik, eta denon partez, gure esker beroenak.

Hitzaldi hauen helburua familiak jasan dituen aldakuntzari hobeto erantzuteko laguntasun bat ematea besterik ez du izan nahi. Ez dago ukatzerik gizartea aldatu dela, beraz, gizarteko

zelula deitzen dena...

Edozein aldaketak bere alde txarrak eta onak izaten ditu eta, normalean behintzat, aztertu egiten dugu ea alde onak pisutsuago diren besteak baino ezer erabaki aurretik. Baina hau, erreza izanik, etxebizitza, kotxea, eta abar aldatzerakoan, nola lortu gizarteak eskani eta exigitzen digun onak eta normalizat ematen diren hainbat aldaketa? Ia konturatu barik sartzen gara denok bere gupil bizkorrean, eta bertan jarraitu, gehiengotan gure bizitzarako izan zitezkeen gauza garrantzitsuenak ahazturik. Eta halako batean, behar bada tontoko bat hartu ondoren edo, suerta liteke geure

“
Familia zerbitzu
batzuk eskaintzen dituen
beste edozer gauzatan
bihur daiteke
”

buruari zera esatea: baina hau al da nik nahi nuena? Ni harrapatua izan naiz!

Agian hau ari da gertatzen familiarekin. Garaietara egokitzea behartuta, bide bazterretan utzi dituela funtseskoak diren gauza asko eta konturatu orduko harrapatua izan dela, eta famili izan beharrean zerbitzu batzuk eskaintzen dituen beste edozer gauzatan bihurtzeko arriskuan dagoela.

Baina hau ez da egun bate-tik bestera gertatzen. Beraz, adi egon behar dugu denok, batez ere familiaren oinarriak jartzen direnean. Noizean behin geratu gupila, urten eta aztertu ea gure familia, arazo eta desadostasun guztien gaitetik, maitasunezko babesaren denontzat edo gizarteak behar duen zerbitzu hutsa. Guk eman diogun nortasuna daukan -gure balorearen arabera- edo eta inongo antzik ere ez.

Honelako edo antzeko azterketak egin ondoren biko-teak baloratu egin dezake egiten ari den bidea zuzena ala okerra den, eta hobetu edo zuzentzeko beharrean dagoen ikusi eta ahal diren neurriak hartu.

Eta nahiz eta ahalegin- du gauzak ez atera guk alde aurretik proiektatu ditugun bezalaxe, hobeto sentituko gara lortu dugunarekin konturatu gabe harrapatuak izan garela konturatzean baino.

Ezkontza eta Famili Pastoraltzaren partaidea da.

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikari erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

astea bi hitzetan

■ UNEDen 25.

urteurrenaren ekitaldia

Aurten UNEDek 25 urte bete dituela eta, ostiralean ospakizun ekitaldia burutu zen UNEDen bertan. Zuzendariaren agurrak, kantek, agintarien hitzek, eta Luis María Bandres-en ikasturtearen irekierako hitzaldiak osatu zuten ospakizuen ekitaldiaren sorta. Ekintzak burutzen ari zirela, Bergarako plazan, UNEDen aurrean, zenbait lagunek enkartelada egin zuten, euskal kultur departamenduaren alde. Orain bi urte UNEDen kendu egin zuten euskara departamentua.

■ Domu Santu eta Hilan Eguna

Goizeko 9etatik arratsaldeko 7ak arte zabalik egon ziren San Kristobalگو eta Aldaiko hilerrien atek zapa-

tuan eta domekan. Bi egunetan jende ugari hurbildu zen herriko eta auzoetako hilerrietara, batzuk lore sortak eramanez eta beste asko esku hutsik. Dena dela, denen gogoak bakarra, oroitzepenerako eta otoitzerako tartetxo bat hartzea.

■ Arrakasta Bulgariako Opera Nazionalak

Mme. Butterfly eta Tosca operen asteburuko emanaldiak guztiz arrakastatsua suertatu ziren, kasu bietan Amaia antzokia betetzeaz gain ikusleak gustora irten zirelako. Zapatuan Mme. Butterfly antzeztu zuen Bulgariako Opera Nazionalak, eta tartean bonba mehatxua jaso zen. Jendeak kanpora irten behar izan zuen, eta antzokia miatu ondoren, berrekin zitzaion emanaldiari. Domekan Tosca ikusteko

jende gutxiago bildu zen, baina erabat arrakastatsua izan zen antzeztu hau ere. Bulgariako Opera Nazionalaren zuzendaria pozik agertu zen, ez zuen eta espero 25.000 biztanle dituen herri batean hainbeste ikusle izaterik.

■ HB Aretxabaletako Udal gobernutik kanpo

Aretxabaletako Herri Batasunak ezin izango du udal txekiko gobernu batzordean parte hartu alkateak kanporatzea erabaki du eta. Gogora daitekeenez, Aretxabaletako batzokiaren eraso gertatu eta gero, EAJko Juan Antonio Rodriguezek HBri erreketak salatzea eskatu zion, esanez bestela udal gobernutik kanporatu egingo zituela. Salaketa gauzatu ez denez, HB gobernu lanetatik kanpo geratzen da.



Sinestezina izan da. Mondragoen nire izena daraman talde bat sortzeak ikaragarri harritu nau. Anoetara etortzen den jendea konturatu da asko animatzen duen talde berri bat dagoela”.



AITOR LOPEZ REKARTE

Extra
Azaroak 1.



Blas (de Otero poeta) orduan eboluzio aroan zegoela errango nuke: Juventud Católica-ren propaganda burua edo horrelako zerbait izan zen aurretik. Eta denbora pixka bat bazen Arrasateko eroetxea utzi zuenetik: anorexia zuelako sartu zuten bertan. Baina nik ezagutu nuenerako sendatua zegoen, poesia liburuaren bat idatzia zuen eta Alea taldeko kide ere izan zen”.

FEDERICO KRUTWIG,

Jakin 101. aldizkaria



TABERNARI GUTXI MONTERRONGO BILERAN

Arrasaten 130 ostalari inguru badira ere, 30en bat agertuko ziren ostegun arratsaldean Monterronera deituta zegoen bilerara. Gaia ezaguna, ordutegi berria. Eztatanda ugariren ondoren, ordutegiari gehiago erreparatzeko erabakia hartu zuten tabernariak, baita prezioak %5 jasotzeko ere.

Spek
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkaí, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

beatriz
oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

UrIBE AUZOA
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

Autoenplegua eta enpresa ekimenak bultzatzeko ikastaroa Udalaren eskutik

Autoenplegu eta enpresa ekimen berriak sustatzeko ikastaroa antolatu du Udalaren Enplegu Zerbitzuak. Ikastaroaren helburuak, enpresa kultura zabaltzea eta enpresa proiektu bat garatzeko formazioa ematea dira. Klase praktikoaren bidez, autoenpleguaren bidea jorratu eta negozio-idea bat abian jartzeko asmoa daukaten promotoreei laguntza eskainiko zaie.

Azaroaren 24tik abenduaren 25a arte iraungo du ikastaroak. Ordutegia arratsaldeko 3etatik 6ak arte astelehenetik ostiralera, guztira, 25-30 ordu inguru. Negozio bat jartzeko behar diren oinarri praktikoak eta baliabide guztiak aztertu ahal izango dira ikastaroan. Interesatuok lehenbailehen joko behar duzue Enplegu Zerbitzura, plazak mugatuak direlako.

ENPRESA ETA LANPOSTUEN SORKUNTZA

Ikastaro hau ez da autoenplegua eta enpresa berriak bultzatzeko asmoarekin Enplegu Zerbitzuak antolatu duen ekimen bakarra. Orain dela bost urte, *Arrisku soldata* delakoa jarri zuen martxan. Arrisku soldataren bidez, proiektu bat aurkeztzen zuten promotoreak kontratatzen ziren proiektu hori garatu zezaten. Ekimenak 95a arte iraun zuen. Denbora horretan proiektu asko landu zen eta emaitza onak lortu direla esan daiteke: bost enpresa berriren eraketa eta hamaika lanpostu. Programak lagunduta, bitxitegi bat, bideo produktora bat, grabaketa estudio bat, informetika denda bat, eta kirol ego-kituetarako zerbitzua eratu ziren.



Sortu Informatikak bideragarritasun plana burutu zuen arrisku soldatari esker.

Iaz, arrisku soldata alde batera utzi eta ikastaroa antolatu zen. Ikastaroan ere, ideia

enpresarial asko garatu zen. Orokorrean, zerbitzuen sektoreari bideratutako proiektuak

aurkeztu izan dira baina edozein ideiak balio du. Interneteko zerbitzu informatikoa, psikologia juridikoko gabinetea eta beste jardueraren enpresarial batzuk jarri dira martxan iaz burututako ikastarolari esker.

Aurten Enplegu Zerbitzuaren asmoa, bide beretik jarraitzea da. Autoenplegua suspertzeko edo negozio bat zabaltzeko ideia duen edozeinek ikastaro honek eskaintzen duen laguntza aprobetxatu dezake. Gainera, proiektuaren baldintzen arabera, beste erakunde batzuen laguntza jaso daiteke. Marga Garmendia, enplegu zerbitzuko arduradunak dioenez "EBZ-Saiolan edo CIEkin harremanak ditugu, eta egokiak diren proiektuendako trapolin bihur daitezke edo gutxienez lagungarri". Esan bezala, ikastaroak formazioan eta proiektuen garapenean laguntzen du. Hortik aurrera, promotore bakoitzak ikusiko du enpresa sortzen duen ala ez.

Autoenpleguaren abantailak

Lana bilatzerakoan, hirugarrenen kontura kontratu bat lortzen saiatzen gara. Formula horrek, abantaila batzuk dauzka: norbera bere lana egitera mugatzen da, eta ez du beste ardurarik asumitu behar. Baina askotan ditxosozko kontratua lortzea ez da hain erraza, edo lortzen bada, ez da langilearen gustokoa. Horren aurrean autoenplegua izan daiteke alternatiba, hau da, norbera izatea enpresaria. Aditu askoren iritziz, horrelako pausu bat eman aurretik komentatu izaten da non sartzen garen jakitea: promotore izateak zer suposatzen duen, zein ardua dituen, nola antolatu eta gestionatu behar duen



MARGA GARMENDIA
Enplegu Zerbitzukoa

enpresa... Arrasateko Udalak eskaintzen duen ikastaroa hildo horretatik doa. Beraz, burutik pasa bazazu inoiz zure kontura negozio bat martxan jartzea, behar bada ikastaro honek lagunduko dizu abiatzen.

Larrialdi eta autobabeserako plana Musakolako kiroldegian

Musakolako kiroldegia edozein larrialdi aurre egiteko prestatuko da hurrengo hilabeteetan. Horretarako, enpresa espezializatu batek kiroldegia jarraitu behar duen larrialdietarako plana osatu du. Suteak eta bestelako egoera larriak gainditzeko, beharrezkoak dira gutxieneko neurri eta baldintza batzuk ezartzea. Momentuz, instalazioen egoera aztertu du enpresa espezializatuak. Orokorrean ondo prestatuta daude instalazioak eta ez dira aldaketa handirik egin behar. Dena den, larrialdietarako argiak, extintore gehiago, ebakuazioetarako planoak eta beste detaile batzuk ipini behar dira.

PERTSONALAREN PRESTAKETA

Bigarren fase baten, langileen ardurak aztertuko dira eta prestakuntza berezia emango zaie larrialdiei aurre egiteko. Besteak beste, pre-



Instalazioak eta pertsonala larrialdi egoetarako prestatuko dira.

miazko laguntza emateko edo extintoreen erabilera ezagutzeko ikastaroak jasoko dituzte. Kiroldegitik jendea ateratzeko simulakroak ere egingo dira. Bestalde, kiroldegian antolatzen diren ikuskizun berezietan zenbat jende sartuko den eta zer nolako neu-

rriak hartu behar diren zehaztuko da.

Neurri guzti horiek, kiroldegian 700 lagunetik gora ibiltzen direlako hartu behar dira. Horrela adierazten da 95ean Eusko Jaurlaritzak ezarritako legean eta bertan mar- katutako neurriak hartuko dira.

MCCk enpresa berria sortu

Aretxabaletako Fagor Sistemak, Gipuzkoako ISEI kooperatibak eta Baionako Sei-Fagor elkarte anonimoak, informazio injineritza talde berri bat eratzeke elkartu dira: Mondragon Sistemas. Talde berriak informazio injineritzako produktuak eta aholkularitza zerbitzuak salduko ditu eta MCC taldearen barruan egongo da. Mondragon Sistemas uztailetik dago abian, baina asteazkenean aurkeztu zuten ofizialki Donostian MCCko arduradun nagusiak eta enpresa berriaren zuzendaria den Javier Bordak.

Mondragon Sistemas elkarte anonimo gisa eratu da. Informazio injineritza alorrean Euskal Herriko enpresa handiena izango da. Aurtun 1.706 milioi pezetaren salmentak izango ditu eta datorren urtean %15a gehiago saltzea espero dute. Mondragon Sistemasein zerbitzuak enpresen lehiakortasuna handituko duten baliabide teknologiko eta informatikoak eskaintzen ditu.

Erreken alboetako sasiak kentzea eskatuko dio Udalak Jaurlaritzari

Arrasateko Udalak, herriko erreketan sasiak kentzea eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari. Eskaera horren arrazoia, Udalaren Zerbitzu Teknikoek sasien eragin negatiboaren inguruan egin duten txostena. Deba ibaiaren eta Aramaioko erreketan alboetan agertzen diren sasiak, bide publikoetarako kaltegarriak direla aipa-

tzen da zerbitzu teknikoek egingako ikerketan. Erreketako zenbait puntutan sasiak kentzeko eskaera egingo zaio Eusko jaurlaritzari. Deba ibaian garbitu beharreko erreka bazterrak honako hauek dira: Takolo inguruan, Bedoña auzora sartzeko bidean; Eskatu inguruan, Popillo base- rriara doan zubian; Kontzezi-

ñoiko iturriaren zubi inguruan; Nafarroa etorbidearen hasieraren atzealdean eta 9, 11 eta 13 etxeen parean eta bukatze- ko, Zigorrolako eta Kataide poligono industrialen atzealdean.

Aramaio ibaian, berriz, Santa Barbara eta Aragoa kale inguruan dauden sasiak kendu nahi dira.

Jaiotzak



- Imanol Sandia Arias. Urriaren 24an.
- Goretti Miguélez Garitano. 27an.
- Jon Iñaki Lasa Ezkurra. 28an.
- Maria Cia Martin. 29an.

Hildakoak

- Ignacio Olazabal Larreategi. 84 urte. Urriaren 28an.

SANTAMAINAN APAIZ BERRIA

Arrasaten lehen meza ospatu zuen joan den astean Mikel Noblek Santamainako parroko berriak. Mikel naparra da eta Arantzazutik etorri da auzo horretako parrokoa eramateko. Mertzedarren elizan emandako lehen mezan. San Frantziskoko parrokoa eta Gipuzkoako Elizbarrutiko bikarioa izan zituen lagun.




BURRUNDADA EDERRA

entzuten zen astelehenean gazteluondo inguruetan. Perkusio tailerrekoak ziren jo eta ke mota guztietako tinbal eta pandereuei soinua ateratzen. Mundu zabaleko erritmo etnikoak, sanba, rock and rolla...denetarik ikasteko aukera izango dute astelehenero. Tailerrean parte hartu nahi duenak, instrumentuaz gain, 500 pezeta eraman beharko du.



GAZTEMANIAK!

Izen berezia du argazkiko pop taldeak: La oreja de Van Gogh. Musikarako entzumena behar bada ere, dirudienez, ez da txarra belarri onak izatea. Taldea, Donostiako Pop Rock lehiaketako aurtengo irabazlea da eta Koko Castillo kantautorearekin eta Feeling Good rock 'n' roll taldearekin kontzertua eskaini zuten joan den astebukaeran Amaia antzokira sarrerarik. Horrelakoxeak dira gazteen maniak.





EPELDE

ZORIONAK BIKOTE!

German Moreno eta Marian Carrascal Uribarriko elizan ezkondu ziren joan den irailan. Gure Ametsan ospaki-

zuna egin eta gero, Costa Ricako hondartzetara joan ziren bizitza berriari hasiera emateko.



Rent a Car
Alkilerreko autoak.
Eta orain
TRAFIC eta EXPRES

MECA
Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

Formazio eta Gizarte Heziketarako zentrokoak ez dira denbora luzean geldirik egoten. Ia Europa osoa ezagutu dute, baina ikasturteari hasiera emateko bidaia bat egitea baino hobea ez dagoenez, Parisera joan ziren urriaren azken astebukaeran. Eiffel dorrean, detalle kuriosoa aurkitu zuten: 2.000. urterako geratzen diren egunak markatzen dituen argizko kontagailua.

KURRO BAINO

BIDAIARIAGOAK

GunePress

Herri aldizkariak publizitate globalaren munduan sartzeko zerbitzu berria

Diru sarrerak ziurtatzera-koan, gaurdaino hiruzpalau iturritik edan ohi dute herri aldizkariak. Hala eta guztiz ere, egarriz dagoen hainbat eta hainbat herri aldizkarirendako diru jariora txiki samarra gertatu izan da. Asetu ez, baina behar bada neurri batean euren premiak leunduko dituen asmakizuna jarri berri dute martxan herri aldizkariak: GunePress izeneko publizitate zerbitzua.

Udaletako dirulaguntzak, Jaurlari-tzaren eta Foru Aldundien dirulaguntzak, bazkideen kuotak, eta publizitatea, horiek izan dira edo izaten dira normalean herri-aldizkariak diru-iturriak. Izan, berez ez dira gutxi, baina egia esan, herri-aldizkari gehienek nahikoa lan izaten dute diru kontuekin parra antzean geratzeko urte bukaerako balantzeetan. Jaialdiak, gehigarriak, harpide kanpainak, gida-komertzialak, ale bereziak eta abarrek laguntza handia eskaintzen dute aipatutako urte bukaerako balantze horiek orekatzeko orduan. Hala eta guztiz ere, nahikoa lan kasu gehienetan. Egoera horrelakoa izanda, argi dago herri aldizkari-gintzan dihardutenek, ordu piloan ematen dituztela ideia berriei begira. Askok eta asko

idea hutsean geratzen dira, baina noiz behinka gauzatzen den bakarren bat edo beste agertzen da. GunePress horietariko bat.

INBENTOAREN SORRERA

GunePress zer den azaldu aurretik, kokatze aldera, herri aldizkariak Topaguneaz berba pare bat. Herri aldizkari bakoitzak bere antolakuntza eta funtzionamendu propioa izan arren, herri aldizkariak elkar-lanerako toki bat ere badute, herri aldizkariak Topagunea. Herri aldizkariak elkarrekin da Topagunea, gai amankomunez arduratzen dena. Nolabaiteko funtzionamenduaren iraunkortasuna ziurtatzeko, zuzendaritza batzorde bat du Topaguneak, dozena erdi aldizkariaren ordekaritza osatuta. Maiztasun jakin batekin biltzen dira Topagunearen zuzendaritzako partaideak, elkarrekin jorratu daitezkeen gaiak eztabaidatu eta proposamenak lantzeko. Erabaki garrantzitsuren baten premia dagoenean edo informazioa ematea kome-

ni denean, herri aldizkariak batzarra deitzen da, denak jakin-nean egoteko edo denen artean erabakitzeko.

Deskribatutako dinamikaren ondorioetariko bat GunePress publizitate zerbitzu berria, behar jakin bati erantzutera datorrena: orain arte eskuratu ezin izan den publizitatea eskuratzea. Herri mailako negozioen publizitatearen euskarri izateko arazorik ez dute izan herri-aldizkariak, baina beste maila bateko bezeroengana iristerik ere ez. Tirada txikia dute herri aldizkariak, horregatik Euskal Herri mailako publizitatea egiten duten bezeroek ez dituzte aintzakotzat hartzen. Beraz, GunePressen lana, aipatutako bezero horiei herri-aldizkariak multzoa eskaintzea, beren kanpainak herriz-herriz baina aldi berean Euskal Herri mailan egin ditzaten.

ARKO GESTIOAN

Topagunearen adostasunaz, ARKOk landu du publizitate

GunePressen lana, "bezero handiei" herri aldizkariak multzoa eskaintzea, beren kanpainak herriz herri eta Euskal Herri mailan egiteko.



zerbitzuaren proiektua, eta hemendik aurrera ARKO bera izango da gestionatuko duena. Aldizkari bakoitzak bere esparru geografikoa kontrolatu beharko du, eta somatuz gero balizko bezeroen batek publizitate globala egiteko asmoa eta ahalmena duela GunePressera deitu beharko du. GunePressek informazio osoa eskainiko dio: tarifak, zerbitzuaren bazkide diren aldizkariak zerrenda, aldizkari bakoitzaren maiztasuna, publizitatearen neurri desberdinak,



egin daitezkeen deskontuak etab. Behin hori eginda akordiorik balego, bezeroarekin gutzia finkatuta utzi beharko

luke: iragarkiak zein eguntan azaldu, zein aldizkarietan, zenbat diruren truke.... GunePress jakinaren gainean jartzea

ARKOk eramango du GunePressen gestioa: besteak beste, espazioen erosketa, inprenta lanen enkargua, eta fakturazioa.

izango litzateke hurrengo pausua, azken hau arduratu dadin ondorengo gestio osoaz: espazioen erosketak, inprenta lanak, fakturazioa etab. Publizitate kontratua bideratzen duen aldizkariak fakturatutako salmenta prezioaren %7,5a jasoko luke egindako lanagatik. Hori beraz, urteroko balantzea egiterakoan gehituko lukeena.

Zerbitzua proiektu den adetik, urtebeteko epea jarri

da froga modura, benetako etekinik ematen duen edo ez ikusteko. Arazoak somatzen diren arren (aldizkarien arteko koordinazioa, neurri desberdinak, epeak...) eta xehe-tasunak lotuz joan beharko den arren, herri aldizkari gintzaren etorkizunerako beste argi izpi bat ekar dezake GunePress publizitate zerbitzuak. Asmoa behintzat, hori da. ■

Beñardo Kortabarria

Arantzazu Lagunilla GunePresseko arduraduna

Herri aldizkariak sortu berri duten publizitate zerbitzuaren arduradun nagusia Arantzazu Lagunilla arrasatearra izango da, orain arte berak landu du eta proiektu osoa.

Berarentzat, pare bat galdera:

- Proiektua eginda dago eta Topaguneko aldizkariak onartu dute. Zeintzuk dira hurrengo pausuak?

- Orain merkatua testatzen hasi beharra dugu, eta horren arabera publizitatea lortzeko ahaleginak gauzatu. Gutunak bidaliko dizkiegu bezero potentzialei, gure aukera eskainiz eta eurekin harreman finko samarra edukitzen saiatzeko. Jakina, hortik aurrera gure medioetan publizitatea egin dezaten komentzitu beharko genituzke.

- Hori kanpora begira, eta Topagunean bertan zer?

- Herri aldizkari guztiei gutun bana bidaliko diegu zerbitzua nola eraman nahi dugun azalduz. Era berean zerbitzuaren



bazkide egiteko aukera emango diegu, eta gero bakoitzarekin hitzarmena sinatuko dugu hainbat gauza zehaztuz.

- Urtebeteko epea jarri duzue. Espektatibak nola-koak dira?

- Denbora horretan guxtienez egin diren eta egingo diren inbertsioak ezal-tzera iritsi nahiko genuke, hori derrigorrez egin beharra dugu.

Bestalde, diru kontuetan sartu barik gure nahia eta espektatibak garbiak dira: herri aldizkariendako toki bat aurkitzea Euskal Herrian egiten den publizitate globalaren mundu horretan, konpetentzia horretan nola edo hala sartzea.

Atleta

ALAZNE RZ. DE MUNAIN

“Nire jarraitzaile sutsuenak etxeakoak dira”

— **Noiztik atletismoan?**

—Joan zen urteko irailean hasi nintzen. Telebistan ikusten nuenean asko gustatzen zitzaidan eta probatzea erabaki nuen. Oso gustora nago taldean.

— **Lasterketa luzetan hobeto?**

—Krosa eta fondo erdia egiten ditut. Lehenengo froga Aretxabaletako krosa izan zen eta txapeldun geratu nintzenez, entrenatzaileak lasterketa luzetan jarri ninduen.

— **Lortutako emaitza onenak?**

— Gipuzkoa mailan hirugarren postuan geratu nintzen 3.000, 1.000 metro eta krosean.

— **Ikasketak eta Atletismoa ondo daramatzazu?**

— Gaur arte bai.

— **Zer botatzen duzu faltan?**


— Atleta guztiok botatzen duguna, pista hobeak entrenatzeko. Orain Elgoibarrera joan behar dugu eta erosoago izango litzateke herrian pista onak izatea.

— **Jendea atletismora animatzeko zer esango zenuke?**


— Beldur barik etortzeko, primeran pasatzen da eta. Gainera emakumeak behar ditugu taldean.

— **Amuletirik erabiltzen duzu?**

— Lasterketetan beti jaurtazeko kate eramten dut.



FUTBOLA Berdinketa baino gehiago



Hori lortzera joango da Preferente mailako Mondra Andoinera. Zapatuan arratsaldeko 3.45etan Euskalduna izango dute aurkari Jesus Mari Barrutiabengoaren mutilek. Euskaldunak gaur arte ez du neurketarik irabazi eta hiru galdu ditu. Saikapeneko 17. tokian dago 6 punturekin. Mondra, azken bi neurketetan emaitza onik ez lortu arren, saikapenean ondo dago kokatuta, 5. tokian 17 punturekin. Partidu guztiak zailak izan arren, Arrasateko taldeak konfiantzaz eta aurrera begira ausart jokatu behar du hiru puntuak ihes egin ez diezaieten.

Mondrako emakumezko taldeak joan zen astean atsedena izan zuen, baina domekan pisuzko aurkaria izango du aurrean, Anaitasuna. Mondrak bost neurketa jokatu ditu, bi galdu Eibartarrak eta Oiarzunen kontra eta hiru irabazi, Añorga, Bilbo eta Gernikaren aurrean. 6. ihardunaldirako Juanaina Garai entrenatzaileak Kakunen baja izango du, berriro belaunean min hartu du eta seguruenera ez da hamaikakoan egongo.

RUGBYA Hernanin arrasatearrak



Zarautzen kontra Hernanin neurtuko ditu indarrak Arrasate Rugby taldeak zapatuan. Arratsaldeko 4etan hasiko den norgehiagokan bi talde paretsu izango dira lehian. Zarautzek talde indartsua du, hiru jokalar oso handiak ditu eta gatxa izaten da gizahezi horiek gainditzea. Horrela izanda ere, buruaz eta


teknikaz jokatuz gero, Patxi Gorosabelek irabazteko modukoa izan daitekeela uste du.

SASKIBALOA Berriro kanpoan



Liderraren kontra jokatzea ez da erronka samurra izaten, are gutxiago liderraren kontra saikapeneko zuloan dagoen taldeak jokatzen badu. Arrasatek Santurtzi izango du arerio zapatuan arratsaldeko 6.30etan Bizkaian. Itxura baten Iker Zubiriaren mutilek garaipena lortzeko txartel gutxi daukate, baina batzutan ezusteak ematen direnez, partidua jokatu arte itxaron behar. Bestalde, azken neurketan arrasatearren jokoa nabarmen hobetu zen eta hobekuntzak jarraitzen badu, albiste pozgarria izan daiteke saikapeneko zuloan burua altxatu barik dagoen talde honentzat.

ESKUBALOA Egia arerio



Arrasate eskubaloi taldeak Egia izango du aurkari zapatuan arratsaldeko 6.30etan Donostian. Saikapeneko behealdean dauden bi talde izango dira nor baino nor. Horrek jakina, ez du esan nahi partidu txarra izango denik; tentsio eta lehia handikoa izan daitekeela, berriz, bai. Jesus Mari Herroren mutilek partiduetan azken boladan ez dute zorte handirik izan, batzutan jokoa ezin sartu eta beste batzutan epaileak aurka. Ondorioa punturik ez eskuratzea. Egia-aren kontra gauzak ondo badoaz denboraldiko bigarren garaipena lor dezakete arrasatearrek.



Udala auzoa moto eta motozaleen topaleku bihurtu zen domekan.

Maila bikaina eta partehartze handia Udalako Trial txapelketan

Arrasate Motozale taldeak antolatutako trial txapelketan egon zen maila ona aipatu behar da. Euskadiko txapelketarako puntuagarria zen frogan 64 parte hartzaile baino gehiago izan ziren. Bakoitzak 8 zonalde izan zituen gainditzeko. Arrasateetik bi ordezkari izan ziren: Ander Landaluzek afizionatueta lehen postua eskuratu zuen 27 punturekin; beteranoetan Jose Angel Zubiarrain boskarren tokian geratu zen. Antolatzaileak pozik zeuden txapelketako mailarekin eta baita zirkuitoarekin ere.

Mailaz maila sailkapena:

Seniorrak

- 1- Diego Urreta - 29 puntu
- 2- Imanol Amondarain - 34 puntu
- 3- Ibon Zorrilla - 43 puntu

Juniorrak

- 1- Gonzalo Zabala - 24 puntu
- 2- Gaizka Ruiz - 51 puntu

Jubenilak

- 1- Juan Carlos Zabala - 88 puntu

Beteranoak

- 1- J. Carlos Maure - 30 puntu
- 2- Jabier Aldekoa - 37 puntu
- 3- Koldo Garin - 46 puntu

Afizionatuak

- 1- Ander Landaluz - 27 puntu
- 2- Jose Maria Garcia - 54 puntu
- 3- Jorge Losada - 55 puntu.

Igeriketa txapelketa

Arrasate igeri taldeko igerilari gazteek Bergarako txapelketan hartuko dute parte zapatu arratsaldean. Benjamin eta alebin mailako igerilariak joango dira. Neguko probetan ohi den bezala, gutxieneko denbora lortzea helburua Gipuzkoako txapelketara joan ahal izateko.

Bonba taldien batzar orokorra

Gaur arratsaldeko 6.30etan Bonba taldiek batzar orokorra egingo du Monterronen. Bertan, besteak beste, gai hauek jorratuko dituzte: Kamiseten salmenta nola doan, bazkideen egoera eta berriak lortzeko epeak zehaztuko dira, Salamancara Reala ikustera egingo duten bidaiaren xehetasunak emango dituzte. Domeka honetan berriz, Realak Españolen kontra Anoetan jokatuako duen partidua ikusten joateko Bonba Taldien autobusa arratsaldeko, 3.30etan irtengo da Garibaitik.

Mari Jose Gil berriro ondo

Durangoko maratoi erdian hartu zuen parte Mari Jose Gil korrikalariak eta beteranoetan 5. tokia eskuratu zuen ordu bete eta 36 minutuko denbora lortuz. Lasterketan 450 korrikalari egon ziren eta ibilbideak 21 kilometro izan zituen. Domeka honetan Behobia-Donostia lasterketa egongo da jokoan. Arrasateetik inoiz baino jende gehiago izango da hasierako lerroan.

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tel.: 79 87 74
ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 79 31 99 ARRASATE



Esaldi topikoa izan arren, hori gertatu da Zaldibar txapelketa-ko bosgarren ihardunaldian. Jokalariak ondo portatu dira, epaileekin ere ez da aipatzeko moduko arazorik egon eta gainera gol dezente sartu dira.

Ekaitzaren ondoren barealdia

Laburrak

■ BITALDE FIANTZA BARIK

Orlando Piratas eta Sobredosis de claro taldeek bi puntu gutxiago dituzte ez zirelako epaitzera aurkeztu. Horrez gain, 10.000 pezetako fiantza galdu dute. Talde biak B multzokoak dira, Orlando Piratas

liderra eta Sobredosis azken sailkatua.

■ AZKENEAN GARAIPENA

Insert Coin eta Txeyenex taldeek denboraldiko lehen garaipena lortu dute bosgarren ihardunaldian. Kostata baina azke-

nean jakin dute zer den aurkaria baino gol gehiago sartzea. Hala ere, sailkapenean dauden zulotik irteteko garaipen dezente lortu beharko dute lehen fase honetan. Zaila izan arren, ez da ezinezkoa. Ez galdu itzaropena!

■ PARTIDU ONAK

Zapatuan goizeko 11etan Borrock Roll eta Koka Juniorsek Zaldibarren, babajana jokoan. 12etan Ke Ostias eta Ac surcos aurrez aurre. Iturripe An, 12etan Estrella Taberna eta Lorategi



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Sailkapenak

Emaitzak

| A taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Aldo | Aurk. | Guzt. |
| Argi Ibili | 5 | 5 | 0 | 0 | 28 | 9 | 10 |
| Sokoakoak | 5 | 4 | 1 | 0 | 41 | 6 | 9 |
| Garaje Oscar | 5 | 4 | 0 | 1 | 19 | 12 | 8 |
| Tamagotxi | 5 | 4 | 0 | 1 | 16 | 13 | 8 |
| Pipwhis | 5 | 4 | 0 | 1 | 17 | 14 | 8 |
| Branka Taberna | 5 | 3 | 1 | 1 | 18 | 11 | 7 |
| Nuevo taberna | 5 | 3 | 1 | 1 | 21 | 13 | 7 |
| Ke Oxtias | 5 | 2 | 2 | 1 | 23 | 12 | 6 |
| Ac Surcos | 5 | 3 | 0 | 2 | 21 | 16 | 6 |
| KKjauri | 5 | 3 | 0 | 2 | 9 | 10 | 6 |
| Jotakabau | 5 | 2 | 1 | 2 | 12 | 11 | 5 |
| Ganbelas | 5 | 2 | 0 | 3 | 12 | 13 | 4 |
| Gartonajes Igamo | 5 | 1 | 1 | 3 | 10 | 18 | 3 |
| Babjana Sexy | 5 | 1 | 0 | 4 | 12 | 24 | 2 |
| Potrosorri | 5 | 0 | 1 | 4 | 10 | 21 | 1 |
| Leya | 5 | 0 | 1 | 4 | 9 | 31 | 1 |
| Onaniereng | 5 | 0 | 1 | 4 | 9 | 31 | 1 |
| Nacex | 5 | 0 | 0 | 5 | 8 | 48 | 0 |

| B taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-----------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Aldo | Aurk. | Guzt. |
| Orlando Piratas | 5 | 4 | 1 | 0 | 25 | 9 | 9 |
| Zotz | 5 | 4 | 0 | 1 | 18 | 7 | 8 |
| Irati STS | 5 | 4 | 0 | 1 | 25 | 16 | 8 |
| Jako al rey | 5 | 4 | 0 | 1 | 27 | 18 | 8 |
| DA Iriztu | 5 | 3 | 1 | 0 | 29 | 21 | 7 |
| Pepelus | 5 | 3 | 0 | 2 | 24 | 22 | 6 |
| Fraguel Gol | 5 | 2 | 2 | 0 | 17 | 15 | 6 |
| Arrogoi taberna | 5 | 3 | 0 | 2 | 23 | 16 | 6 |
| Lauterbrunen | 5 | 3 | 0 | 2 | 23 | 22 | 6 |
| Betrayer | 5 | 2 | 1 | 2 | 20 | 16 | 5 |
| Jay Holigans | 5 | 2 | 0 | 3 | 14 | 20 | 4 |
| Rotor de Bolb.5 | 2 | 0 | 3 | 14 | 11 | 4 | 3 |
| Komando alparg. | 5 | 1 | 1 | 3 | 11 | 19 | 3 |
| Ainarexia | 5 | 1 | 0 | 4 | 18 | 28 | 2 |
| DKB | 5 | 1 | 0 | 4 | 13 | 26 | 2 |
| Epeh | 5 | 1 | 0 | 4 | 10 | 16 | 2 |
| Bukanak | 5 | 1 | 0 | 4 | 16 | 35 | 2 |
| Sobred.de Claro | 5 | 1 | 0 | 4 | 13 | 28 | 2 |

A taldea

Ke Oxtias 2 - Argi Ibili 6
 Jotakabau 0 - Branka Taberna 2
 Sokoakoak 4 - Leya 1
 Babajana Sexy 7 - Nacex 2
 AC Surcos 3 - Nuevo taberna 8
 Cart. Igamo 1 - Garaje Oscar 2
 Pipwhis 5 - Potrosorri 3
 Ganbelas 3 - Onaniereng 1
 KKjauri 1 - Tamagotxi 2

B taldea

Pepelus 4 - Betrayer 8
 Jey Holigans 3 - DA Iriztu 9
 Kom. Alparg. 3 - Fraguél Gol 3
 Irati STS 8 - Sobred. de Txeira 4
 Orlando Piratas 10 - Ainarexia 5
 Lauterbrunen 11 - Bukanak 4
 Jako al Rey 7 - DKB 1
 Rotor de Bolbogrado 2 - Epeh 1
 Zotz 3 - Arrogoi taberna 4

| D taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Aldo | Aurk. | Guzt. |
| AT Celaya | 5 | 4 | 1 | 0 | 15 | 7 | 9 |
| Koka Juniors | 5 | 4 | 1 | 0 | 34 | 14 | 9 |
| Totem | 5 | 4 | 0 | 1 | 33 | 6 | 8 |
| Estrella Taberna | 5 | 4 | 0 | 1 | 22 | 11 | 8 |
| Naranja Mekanika | 5 | 4 | 0 | 1 | 26 | 16 | 8 |
| Aurrera Bolie | 5 | 3 | 0 | 2 | 29 | 18 | 6 |
| Aldibi | 5 | 3 | 0 | 2 | 23 | 13 | 6 |
| Aldapa taberna | 5 | 3 | 0 | 2 | 18 | 19 | 6 |
| Borroch Roll | 5 | 2 | 1 | 2 | 18 | 23 | 5 |
| Lorategi | 5 | 2 | 0 | 3 | 19 | 16 | 4 |
| Los Heredia | 5 | 2 | 0 | 3 | 12 | 17 | 4 |
| Makai | 5 | 2 | 0 | 3 | 11 | 27 | 4 |
| Txeyenex | 5 | 1 | 1 | 3 | 16 | 20 | 3 |
| Kamasutra | 5 | 0 | 2 | 3 | 13 | 23 | 2 |
| Insert Coin | 5 | 1 | 0 | 4 | 15 | 25 | 2 |
| Etxe Mobil | 5 | 1 | 0 | 4 | 11 | 23 | 2 |
| Iluna Taberna | 5 | 1 | 0 | 4 | 9 | 30 | 2 |
| Elisabeth | 5 | 1 | 0 | 4 | 14 | 31 | 2 |



D taldea

Estrella tab. 3 - Naranja Mek. 4
 Aurrera Bolie 4 - Insert Coin 5
 Aldapa Taberna 4 - Los Heredia 2
 Etxe mobil 4 - Elisabeth 6
 Lorategi 2 - koka Juniors 5
 Txeyenex 6 - Kamasutra 1
 Totem 0 - AT Celaya 1
 Makai 0 - Borroch Roll 4
 Iluna Taberna 2 - Aldibi 8

GOLAREN BILA. Hori izaten da talde guztien helburua behin partidua jokatzen hasita, baina denek jakina ez dute lortzen aurkariaren atea zulatzea. Ganbelas eta Onaniereng taldeen arteko norgehiagokan Ganbelasek hiru gol bilatu zituen neurrian, Onaniereng bakarraren konformatu behar.



Aldibi
 Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
 Tel.: 71 20 02

Hurrengo partiduak

6. Ihardunaldia

Azaroak 8, Larunbata

Zaldibar

8.50 Jey Holigans - Fraguél Gol
 10.00 Rotor de bolbogrado - DKB
 11.00 Borroch Roll - Koka Juniors
 12.00 Ke oxtias - AC Surcos
 13.00 Irati STS - Arrogoi taberna
 14.00 Aldapa Taberna - Kamasutra
 15.00 Txeyenex - Totem
 16.00 Ganbelas - Potrosorri
 17.00 Ainarexia - Epeh
 18.00 KKjauri - Branka taberna
 19.00 Babajana - Tamagotxi

Iturripen A

11.00 Lauterbrunen - Jako al rey
 12.00 Estrella taberna - Lorategi
 13.00 Onaniereng - Nuevo taberna
 14.00 Naranja Mekanika - Elisabeth
 15.00 Betrayer - Sobredosis de Txeira
 16.00 Pepelus - Orlando Piratas
 17.00 Aurrera Bolie - Los Heredia

Iturripen B

13.00 Etxe mobil - Aldibi
 14.00 Argi Ibili - Nacex
 15.00 Iluna taberna - Insert Coin
 16.00 Komando Alpargat - Bukanak
 17.00 Jotakabau - Leya

Azaroak 9, Igandea

Zaldibar

9.50 Makai - AT Celaya
 11.00 Cartonajes Igamo - Pipwhis
 12.00 Zotz - DA Iriztu
 13.00 Sokoakoak - Garaje Oscar

LUPE JARA (PERUKO ERREFUXIATU POLITIKOA)

“Alberto Fujimori narkotek...

Lupe Jara peruarra, errefuxiatu politikoa da. Bere herriak bizi duen egoerak asilo politikoa eskatzera bultzatu zuen eta orain Madrilen bizi da. Bere lurraldetik milaka kilometrorra, ez ditu han utzitakoak ahaztu eta herriz herri ibiltzen da Peruko errealitate gordina salatzen. Lupek kontatzen duenak benetan ikaratu zituen orain egun batzuk Montterronen bildutakoak.

- Peruko herriak bizi duen zapalkuntza egoera ez da gaurkoa...

- Bostehun urte dela errefuxio egoera izugarria bizi du Peruk. Gobernua bat bestea atzetik izan dugu, militarrek, zibilak, demokratikoak eta gauzak berdin

darraite. Herri peruarrek lortu duen guztia heriotzekin ordaindu behar izan du.

- Eta gaur egun?

Fujimori gobernura iritsi eta zortzi egunera, inflazioa %7.000 igo zen eta gasolina %3.000. Segidan, kongresuaren izena onartu ondoren, kanpaina burutu

eta estatu kolpea eman zuen. Bere politika, enpresario handi eta militarrek antolatutako *Peru al 2.000* izeneko plan faxistara egokitu zen. Neoliberalismoa ezartzea, talde

terroristekin bukatzea, herria sakrifikatzea eta preso politikoak exterminatzea dira plan horren ardatzak.

- Zertan datza, presoekin exterminio plan hori?

Gaur egun MRTAk 480 preso ditu, Sendero Luminosok 1.500 eta beste guztiak erregimenaren aurka altxatutako herritarrek dira. Egoera tamalgarririk bizi dira, inongo esku-bide barik. Sistema judizialean, aberriaren aurkako traizioa ezarri eta akusatuak torturatzen dituzte. Esku eta oinak lotuta, lixiba, hondakin, edo kakaz betetako barriketan sartzen dituzte ia itotzeraino edo genitaletan deskarga elektrikoak ematen dizkiete beste gauza batzuen artean. Ondoren, kaputzez estalitako epaile militarrek 20 urte, 30 edo bizi osorako kar-



“Hilobi kartzelan, zeldak lur azpian zortzi metrora daude. Bertako presoek 30 eta 40 kilo artean galdu dute eta itsututa daude egun osoa iluntasunean daudelako”



terrorista bat da”

tzela zigorrak ezartzen dituzte bakarrik poliziaren infor-meetan oinarrituta. Militarrek absolbitzen dituztenak, beste tribunal zibil batek epaitzen ditu berriro, eta epaiketa batetik bestera lau edo bost urte igarotzen dira kasu gehienetan. Abokatuak enkaputxatu egiten dituzte epaiketara eramateko eta bi ordu ematen diete defentsa prestatzeko. Normala denez, abokatu peruarrak ezer gutxi jakin nahi dute epaiketa politikoei buruz. Kondenatuak urtebete inkomunikatuta egoten dira bisitak jasotzen hasi baino lehen.

- Nolakoak dira kartzelak?

- Cayaoko itsas basearen kartzela urte batzuk dela egin zuten bizi osorako zigorrak dituztenendako. Hilobi kartzela deitzen diogu, zeldak lur azpian zortzi metrora daudelako. Ate blindatuko zeldek airebide txiki bat bakarrik dute sabaian. Bi bider hiru metroko zeldak

dira. Presoek ez dute harreman fisikorik inorekin, janaria ateko zirikitu batetik pasatzen dietelako. Bertako presoek 30 eta 40 kilo artean galdu dituzte eta itsututa daude eguneko 23 ordu t'erdi iluntasunean pasatzen dituztelako. Ayanamayoko kartzelak baditu lehioak, baina ez kristalik. Kartzela 3.600 metro-ra dago eta lehioek bakarrik burdinezko barroteak dituzte. Udan egiten duen temperatura altuena 12°koa dela kontutan hartuta, pentsa zer egoeran dauden presoak. Gehienei azazkalak erortzen zaizkie hotzaren eraginagatik.

- Enbaxada japoniarraren bahiketaren bukaera ikusita, zer edo zertarako balio izan zuela esan daiteke?

- Fujimorik MRTAko 17 militanteak ejekutatatu zituen, baina euren heriotzak, Peruko egoeraren inguruko isiltasuna apurtzeko balio izan zuen. Asaltoari esker, jendek erreakzionatu eta beldurra galdu du. Gaur egun milaka lagun manifestatzen dira bakearen alde eta hori oso garrantzitsua da. Borroka horretan jarraitu behar dugu. MRTAko lemak dioen bezala, ezin ditugu hildakoak eta presoak

ahaztu. Giza eskubideen aldeko komisiok presionatu behar ditugu, Fujimori narkoterroristaren aurka ager daitezen. Perun 10.000 desagertu daude. Jendea desagertarazteko metodo bat, pertsonak helikopteroetatik itsasora botatzea da. Frogatuta dago Fujimorik ekintza horietan personalki parte hartu duela, lagun bat nola bota zuen deklaratu izan du eta. Gobernu peruarraren ekintzek zigorgabetasun osoa dute eta beharrezkoa da hori salatzea.

- Fujimoriren gobernuari 2.000. urtean bukatzen zaio agintaldia. Badago beste alternatiba politikorik?

- Fujimori fatxada bat besterik ez da. Dagoeneko, bere irudia oso gastatuta dago eta ez dut uste hurrengo legislatura bat jarraituko duenik. Dena den, beste bat ipiniko dute bere orde. Irtenbidea ez da bide politikoa horretatik etorriko ■

“Perun 10.000 desagertu daude. Jendea desagertarazteko, helikopteroetatik itsasora botatzen dute. Fujimorik lagun bat nola bota zuen deklaratu izan du”



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxes: 77 14 76

Inoiz baino lan gehiago aurkeztu da aurten

AED lehiaketek markak hautsi

AEDren lehiaketek marka guztiak hautsi dituzte aurten parte hartzaile kopuruan. Guztira 354 lan jaso dira, horietatik 17 Jokin Zaitegi itzulpen laburren sariketaren atalean.

Aurreko urteetako ildo berean gaztetxoenen mailetan jaso da lan kopuru handiena. Ez da harritzekoa, ikas-tetxeetako irakasle askok euren ikasleak lanak bidaltzera animatzen dituzte eta. Atal ezberdinei erreparatuta, ohi bezala ipuina izan da jaun eta jabe. Aurten 201 ipuin jaso da lehiaketan parte hartzeko. Komikiak eutsi egin dio gorako joerari eta azken bi urteetan bezala bigarrena da jasotako lan kopuruaren rankinean, ipuinetatik nahiko urrun halere: 53 komiki. Ondoren poesia dator 55 lanekin eta bertso paperetan 21 lan jaso dira.

Azken urteetako datuak aztertuta, nabarmentzekoa da aurkeztutako ipuin eta bertso paper kopuruan eman den gorakada. Iaz, adibidez, bost



Itxaro Artola AEDko kultura dinamizatzailea jasotako lanak sailkatzen.

bertso paper besterik ez ziren aurkeztu, aurten 21, eta ipuinetan 10-13tik 35era igo da lanen kopurua.

Aurtengo berrikuntzak ondorengo hiru ataletan etorri dira: Antzerkigintza, ikus-entzunezkoen gidoigintza eta Arrasateko euskararen testigantza. Hiru alorretan, aurten

lehenengo aldiz aurkeztu izan dira lehiakideak. Bost antzezlan aurkeztu dira, lau gaztetxoeren mailan eta bat helduenean, ikus-entzunezkoen gidioen atalean beste bost lan eta Arrasateko euskararen testigantza jasotzen duten 17 grabaketa jaso dira.

Bestalde, Jokin Zaitegi

XI. itzulpen laburren sariketan 17 lan aurkeztu dira aurten. Kasu honetan ere, azken urteetako markak hautsi egin dira, batez ere atzera begirata iazkoan lau itzulpen eta 94an, adibidez, bi itzulpen jaso zirela ikusita.

Sailetan banatuta, epaimahai ezberdinek hilabete osoa izango dute bildu eta erabakiak hartzeko. 19 sari daude aurrikusita lehiaketan kasuan eta beste bi Jokin Zaitegi sariketen kasuan. Jakina, lanak behar den kalitate mailara helduko ez balira, sari bat edo beste hutsik uztea erabaki dezake epaimahaiak; era berean, kalitatearen arabera beti, epaimahai bakoitzak sariez gain akzesitak banatu ahal izango ditu.

Azaroa epaileen lanerako tartea izango da. Finalisten zerrendak abenduaren 10erako jakinaraziko dira eta behin betiko saridunen izenak abenduaren 19an aipatuko dira Monterronen egingo den ekitaldi publikoan.

**Haurdun bazaude LAURA da
zure jantzidenda.
Udazkeneko moda
gaztea jazteko neurria ez da izango
arazoa.
Tailaje zabalena dugu.**

Laura



**Erdiko Kale, 30 • ARRASATE
Tel.: 79 05 80**

URBIL ARTOLA, MUSIKARIA

“Hau proiektu serioa da”

Artola abizena ezaguna bazen euskal kantagintzan, orain bi halako. Txomin zaharrak badauka bere oinordekoa: Urbil semea. 25 urte, azken bost urteak musikari lotuak eman ditu eta ez dira gutxi parte hartu duen proiektuak: Sorotan bele, Mikel Errazkin, Furunda...

Orain, aita-semeak tabernan daude kitarra bana eskuetan. *Hondarribian* diskoa ondotoxoa ari da saltzen eta antzektokiz antzektoki dabil bikotea. Zapatu honetan musika hamabostaldiaren egitaraua itxiko dute.

- Aitarekin batera hasi duzun hau zer da zuretzat, hasiera eta amaiera izango dituen proiektua, ala hori baino serioagoa da?


- Hau guztia orain bi urte edo hasi zen, berak bi kitarraz jotzeko diskoa egin zuenean. Orduan zuzeneko emanaldietan laguntzeko eskatu zidan eta gero grabatu dugun diskoa, zuzeneko emanaldi haien islada da. Biontzat aurrera jarraitzeko moduko proiektu serioa da. Hasten ari gara eta ez dugu mugarik jarri.

- Zer da zuretzat aitarekin batera jardutea?

- Oso gustora nago. Bat gatzos musika zaletasunetan, bioi asko gustatzen zaigu kitarra akustikoa... Aitarekin aritzea berezia da, ez da beste edozeinekin aritzea bezala, baina ez nuke esaten asmatuko.

- Nola antolatuko duzue zapatuko emanaldia?

- Hasieran aitaren azken diskoetako kantak joko ditugu, hain ezagunak ez direnak. Emanaldiaren erdialdean erritmo biziagoko tarte bat dago eta amaierarako jendeak ondoen ezagutzen dituen kanta zaharrak utzi ditugu.



- Bestela, aurrera begira zer?

- Orain batez ere aitarekin ari naiz, zuzeneko emanaldietan eta bigarren diskorako ideiak lantzen. Horrela jarraituz gero segurua asko egingo dugu bigarren disko bat, baina lasai hartuta, ez hemendik urtebetera. Bestalde, Patxi Kaleko taldea sortu dugu Furunda, Sorotan beleko Ritxi baxujolea eta Mikel bibolinjolea eta laurok. Konpromezurik gabeko taldea da, ondo pasatzeko asmo bakarrak eta tabernetan aritzen gara kanta zaharren bertsoak eta zeltiar kutsukoak jotzen.

- Nahiago duzu nomina ziurtatzea musikaren gorabeheretan ibiltzea baino?

- Ez pentsa. Orain erdian nago. Alde onetik begiratzen diot abenturari. Trukoa gastuak kontrolatzea da, musikariak ez dauka eta diru sarrera finkorik. Nork bere bizitzako erritmoaren arabera hartu behar du erabaki hori. Ni neu nomina bati lotura handiegirik ez hartzen saiatzen naiz beti, musikan pentsatzen. Ez da beti erraza.

aste gazte

■ BEKAK

• Herri administrazioarekin zerikusia duten gaietarako buruzko ikerketak egiteko dirulaguntzak. Epea: azaroak 13

• *Bankaja Fundazioak* eta CSICek, agrokimika, elikaduraren teknologia, neurozientzia, biomedikuntza, desertifikazioa, akuikultura, biologia, kimika, ... alorretan. Epea: azaroak 18.

■ LANA

• Nafarroako hainbat herritan administrari laguntzaileak behar dituzte:

- Etxarri Aranaz (egun erdirako). Epea: azaroak 15.

- Huarte (egun erdirako). Epea: azaroak 17.

- Noaingo (Elorzgo Arana) Udalera. Epea: azaroak 20.

- Doneztebeko Udalera. Epea: azaroak 20.

• Noaingo Udalera lorezain bat behar dute. Epea: azaroak 20.

■ LEHIAKETAK

• Oretako Udalaren eskutik, komiki lehiaketa. Epea: azaroak 28.

• Literatur lehiaketa aukera ezberdinak:

- *Hondarribian, Bordari Ipuin Saria* eta *Satarka Olerki Saria*. Lanak euskaraz idatzia. Epea: azaroak 15.

- *XVI. Xabier Lizardi Saria*, haur-ipu lehiaketa. Lanak, euskaraz eta gai librean aurkeztu behar dira. Epea: azaroak 21.

- *XV. Tene Mujika Narrazio Laburren Literatur Saria*. Epea: azaroak 27.

- *Eibarko Hiria Gazteen XII. Ipuin Lehiaketa*. Euskaraz zein gazteleraz. Epea: azaroak 31.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

Urbil eta Txomin Artolaren emanaldia bihar Amaia antzokian arratsaldeko 8etan



Txepetxa

Aurrekoan agindu moduan, hementxe gaude hegaztien gorabeherak kontatzeko prest. Gure zerrendaren lehen protagonista txori ezagun bat: txepetxa.

Txoritxo hau gure artean dauden bigarren txikiena da. Bere tamaina txikiari eta hego motzei esker, oso erraz mugitzen da sasi artean, hau baita bere etxea: sasitzaren argi-iluna, nongo zulo eta zirrikituen artetik kanpoko mundura ateratzen den.

Hain txikia izanik ere, harrigarria da abesteko duen sasoia. *Pavarotti*, *La Polla* eta *Su ta Garren* arteko honek benetan ozen eta potente abesten du, eztarrian anplifikadorea izango balu bezala, inguruan dabilen edozeini susto ederra emateko beste.

Honela ezagutuko dugu askotan: sasi artetik abesti iskanbilatsu bat entzuten da. Bapatean, forma txiki marroia ikusiko dugu, bala baten antzera sasi batetik ateratzen ondoko bestean murgiltzeko. Beste gutxitan ordean, gelditu egiten da, buztana tente, berriz ere abestuz. Orduan izango dugu aukera ondo ikusiteko eta aldi berean pentsa-

tzeko: txori nimiño honek aterra al du horrelako zarata?

Eta ez pentsa txikia delako kokilduko denik, batez ere kabian familiarekin dagoenean, gibelak ditu hurbiltzen den edozeini, nahiz eta askoz handiagoa izan, aurre egiteko, uxatzeko ahaleginetan.

Udaberria datorrenean, txepetxa arrak hainbat kabi egiten ditu, barruan berotasuna gordetzeko lumak jarriaz. Izan ere, arra poligamoa da, eme ezberdinekin elkartzen da kabi ezberdinetan. Baina ez pentsa "Don Juan" itxurako hau aprobetxategi bat denik. Eme bakoitzarekin batera txitak elikatzen ditu, eta horretarako lana gogotik egiten du, jo ta su, etengabe hara ta hona intsektuak harrapatuz txita guzti guztien ahora eramateko. Bizi-ohitura honek badu alde on bat, ez dagoela emerik nobio gabe geratuko denik eta txitak ateratzeko aukerarik izango ez duenik. Zentzu honetan, txitak sortzea oso ohitura emankorra da. Txepetxa asko hiltzen da neguko hotzaldietan, eta horri aurre egiteko oso garrantzitsua da txita asko sortzea. Bere alde txarra, ordea, zera da: ar asko geratzen dela eme gabe, bakarti. Izan ere, orokorrean txoritxo hau

bakarti samarra dela dirudi.

Hotzaldiak benetan latzak egiten zaizkiola esan dugu. Sasitzaren barren-barrean eusten du ahal duen bezala, hotzak akabatzen, goseti, hotza apur bat baretzen denean mugitzen hasteko eta geratzen diren intsektu bakanak gose amorratuaz janez. Hegoak estutu eta... tinko hurrengo hotzaldian ere, heriotz zuria behin baino gehiagotan ikusiz... batzuk... eta batzutan askok... erortzen dira...

Egun batean, argi beso disdiratsu bat sartzen da, lotsati, sasitzaren ilunpe artera, azkenetan dagoen txepetxaren begitarteari keinu eginez. Usain gozoa ere berarekin etorriko da, sudurzuloak lantzantzerakoan esnatuz.

Sasitzaren teilatura igo, urduri, eta... zer ikusiko? Belararren berde argi berri-berria, lore pilo baten kolore bizigarriekin dantzan... hasi zaizkio begi eskertuak zabal-zabal ipintzen... bizia da! Udaberria da! Hura barrunberaren leher-tzea! Hura poza!

Naturak nabaritzen ez den sekreturen bat baldin badu, txepetxena hau.

Urtzi Mendizabal

Euskerien txokoa

Ezer, inor, inon, inora... ez

Gure aldizkari honetako "hogeita hamar galderatan" saileko galderak irakurri eta hala-koak aurkituko ditugu.

"9. Nor miresten duzu? Inor.

11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Ezer".

Horreik erantzunok ez dagoz ondo. Ezetza edo ezezkoa esan gura dogunean, beti agertu beharra dago "EZ" elementua. Hau da: Inor ez, ezertaz (ere) ez, ezer (ere) ez...

Hemen, barrez, ino-bez, ezebez, inun bez (ahoz) esaten dogu.

Baina noz esan behar dogu inor, ezer... elementu hori bakarrik?

Galdera: (perretxikutan joan ostean) "Ezer ekarri dok? Ez juat (etxuat) ezer ekarri".

Baiezkoa (ezer) eta ezezkoa (ez... ezer).

Hortaz, badakigu EZ hori be jarri egin behar dogula; osterantzean, txarto dago esaldia eta horrela, sekulako belarriko miña sortzen jarraituko dogu.


Karmelo Uribarren

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETA



Shakespeare osoa (Gutxi gorabehera) Todo Shakespeare (o casi)

— EUSKARAZ —

Azaroak 14 (Ostirala)

10.30etan • 800 pta.

Amaia antzokia

— GAZTELERAZ —

Azaroak 15 (Larunbata)

10.30etan • 800 pta.

Amaia antzokia



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Gipuzkoako
Foru Aldundia

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Garagartzako Zabalbide kalean pisua salgai (Atxabalpe ondoan). 7 milioi. Tel.: 79 84 06. Eguerdietan eta gaueetan.

- Gesalibarren egoera onean dagoen baserria salgai. 3 solairu ditu, bakoitza 20 m²koa. Tel.: 79 97 35. 14.00etatik aurrera.

- Santamainan pisua saltzen da. Tel.: 79 81 15.

3. Errentan emateko

- Ikasleendako pisua San Andresko Garro Generala kalean. Tel.: 76 21 70.

- Pisua alokatzen da Arrasaten. Tel.: 76 21 70. Gaueko 8etatik aurrera.

- Pisua alokatzen da Bizkaia etorbidean. Tel.: 79 22 92.

5. Etxe konpartituak

- Iruñako neska Arrasaten pisua konpartitzeko gertu. Tel.: (948) 26 93 43.

- Eskola inguruan lagun bat behar dugu pisoa osatzeko. Tel.: 77 08 44.

- Gasteizen hiru mutilek laugarren bat behar dute pisua osatzeko. Tel.: (945) 25 10 37. Mikel.

- Arrasaten pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 79 27 70. Lan orduetan. Alberto.

- Donostiako alde zaharrean pisua osatzeko bi neska behar dira. Tel.: 42 40 41.

- San Andresko Errebueta, 6-5. B-an jendea behar da pisua osatzeko.

- Arrasaten etxea alokatzeko edo konpartitzeko prest nago. Tel.: 71 42 86. Javier.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

- Kontzeziñon garajea alokagai. Tel.: 79 55 20.

- Kontzeziñon garajea alokatzen da. Tel.: 79 54 07.

10. Errentan hartzeko

- Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otorora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deltu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK

12. Saldu

- Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

- Bulegoa jartzeko egokituta dagoen lokala errentan ematen da Bolintxo ondoan (Arrasate Pasealekua). 52 m². Bi irteera ditu. Tel.: 79 02 52.

15. Errentan hartzeko

- Gasteizko zeramista batek tailerra jartzeko lokala konpartituko luke. Tel.: 71 42 86. Javier.

- Arrasaten lokal komertziala edo industrialia hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.

LANA

17. Eskaintzak

- Emakumea gertu umeak eta zaharrrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 97 11.

- Emakume euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

- Titulodun neska lan administratiborako eskaintzen da. Tel.: 907 94 06 67.

- Neska gertu edozein lan egiteko. Tel.: 79 99 63.

- Astelehenerdik igandera zure umeak zainduko ditugu. Tel.: 79 20 55 edo 79 65 02.

- Esperientziadun emakume euskalduna pertsona nagusiak eta gaisoak zaintzeko gertu. Tel.: 77 04 60. Marga.

- 32 urteko emakumea bulego edo etxeak garbitzeko gertu. Tel.: 77 00 26. Goizetik arratsaldeko 4ak arte.

- Esperientziadun neska gertu goizetan umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

- Neska orduka lan egiteko gertu. Tel.: 79 77 91.

- Bergara Au pair. Ingalaterra, Eskozi, Irlanda, Frantzia... *au pair* agentzia batek eskaini diezakeen gutzia gehi beste mila lanpostutan aritzeko aukera. Tel.: 76 26 06.

- Esperientziadun neska gertu umeak edo pertsona nagusiak eta etxe-

ko lanak egiteko. Tel.: 79 31 44. Miriam. Gauez.

18. Eskaerak

- Multimedia sektoreko elkarrekin bazkidea behar du. Ezagutza eta esperientzia frogagarriak eskatuko dira. Tel.: 71 20 30. eta 929 41 59 43.

- Zabalkunde handiko kosmetika konpainia batek lana eskaintzen du emakume serioendako. Tel.: 21 19 90.

- Bi ume zaintzeko emakume edo neska euskalduna behar da. Tel.: 79 76 56.

- Sukaldaria behar dugu. Tel.: 79 68 57.

- Esperientziadun kamareroa behar da. Tel.: 71 43 45.

- Au pair bat behar da Ingalaterra-ko hegoaldeko Exeter herrian. Tel.: 79 82 09.

19. Denetarik

- Ingeles, gaztelera eta euskarazko itzulpenak egiteko pertsona behar da. Tel.: 79 25 75.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- DBHko ikasgai eta Logse-n matematika emateko gertu. Talde txikiak. Esperientziaduna. Tel.: 79 08 59.

- Majisteritza duen neska batek klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 35 24.

- 3. mailako injinerutza ikasleak LH eta DBH klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 43 56.

- Psikologoak OHoko klase partikularrak, ikas teknikak eta laguntza eskolarra emateko gertu. Tel.: 77 17 02 edo 909 44 88 20.

- OHO eta DBHko klase partikularrak ematen dira. Tel.: 77 00 29.

- Injineritza ikasleak DBH eta LHko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 33 39.

MOTORRA

23. Saldu

- Garraiorako karroa salgai. Berria eta prezio interesgarrian. Tel.: 79 63 79.

• R-4 salgai. Oso egoera onean eta merkea. Tel.: 79 23 69.

• Seat Marbella autoa salgai. 25.000 Km. Prezioa: 350.000 pta. Tel.: 79 97 87.

• Selex GR 1.450 fotokopiagailua salgai. Tel.: 77 04 98.

DENETARIK

26. Saldu

• Ordenagailua salgai prezio onean. Tel.: 79 14 71.

• 1. eta 2. batxiler teknologikoko euskarazko liburuak erdi prezioan saltzen dira. Tel.: 79 71 25.

• Super Nintendo salgai. Lau joku ditu. Tel.: 79 23 35 edo asteburuetan 13 17 28. Mikel.

• 1,35 zm. ko zubi-logela salgai. Tel.: 79 38 16.

• Bulegorako mahaia salgai. 78 x 158 zm. Argikoa. Tel.: 79 08 23. Iñaki.

• Larruzko kremaileradun txaketa beltza salgai. Berri berria. 40. tailakoa. Prezioa: 15.000 pta. Tel.: 79 35 47. Gauez. Edume.

• Kerosenozko berogailua salgai. Tel.: 79 78 65.

• Bi mandodun Super Nintendo salgai. 7 joku ditu. Prezio ona. Tel.: 77 10 82. Nestor.

• Bigarren eskuko trikiti txikia salgai. Piggini markakoa. Egoera onean. Tel.: 79 08 37.

• Komuneko manpara salgai. Egoera onean dago. 1.50 m. Prezioa: 12.000 pta. Tel.: 79 97 60.

• Conserban Roller karabana salgai. 4-5 lagunendako. Oso egoera onean dago. Tel.: 79 59 71.

• Yorkshire arrazako txakur kumeak salgai. Tel.: 77 04 84. Gauez.

27. Erosi

• Lau pistadun grabagailua erosiko nuke. Tel.: 79 41 97. Koldo.

30. Hartu

• Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko garajasotzen. Tel.: 79 65 31. Maite.

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukalde eta hozkailu bat

behar du. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Hiper-Eroskiko kafetegian txaketa urdina galdu nuen. Ume batena da eta bihotz gorriak ditu aurrealdean. Tel.: 77 01 51. Espe.

• Urriaren 3an gizonezko aterkin luze eta beltza desagertu zitzaidan Lagun-Aroko aseguru-etako bulegoan. Konfundituta hartu bazenuen dei egin 79 39 88 telefonora.

• Casio markako erloju beltza galdu nuen Etxezapia eta Larringain kale inguruan (Malvinas). Sarituko da. Tel.: 77 10 20.

• Urriaren 28an estutxe baten zeuden betaurrekoak galdu nituen Olarte kalea inguruan. Tel.: 79 07 24.

• Uribarriko parrokia, Arimazuri edo Eguzki dorre inguruan erlojuak galdu nuen. Tel.: 79 39 42.

32. Aurkitu

• Ordulari bat aurkitu nuen Munarrekoko zubian. Pultseraduna da. Tel.: 79 08 04.

• Irati taberna parean bizikleta bat aurkitu genuen, zeurea bada pasa zaitez

bertatik.

35. Denetarik

• Ford Scort markako kotxea lapurtu digute. Gris argia. SS-75 84-T. Urriaren 23an desagertu zen Eskoriatzan. Tel.: 79 37 68.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Zumarragara egunero kobez doan norbaitekin harremanetan jartzea nahi dut. Tel.: 79 98 24. Karlos. Egurditan.

• Astelehenetik ostegunera Lelora-joan behar dut autoz. Goizeko 9etarako iristen naiz eta buelta 14.00etan. Bidaia konpartitzea interesatzen bazaizu deitu 79 48 83 edo 79 65 34 telefonora.

• Euskal heavy-rock talde baten baxulari behardugu. Tel.: (945) 136703. Jokin.

• Arrasateko rock talde batek baterajolea behar du. Punk/Oil! estiloa. Tel.: 79 79 35. Asier.

Ostiral honetan, azaroak 7 eta larunbatean (goizez), ALFA ROMEO 156 berriaren aurkezpena egingo da.

ZATOZ EZAGUTZERA!



ALFA 156

=KANPAZAR TAILERRAK

Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE • Tel: 79 77 66

■ Horoskopoa

- **Aries** Erlojua aspaldi atzeratu behar zen motel. Zu beti berandu...
- **Taurus** Beleak xoxoari ipurbeltz, biak berdinak zarete.
- **Gemini** Azken boladan dotore baino dotoreago zoaz.
- **Cancer** Emaiozu musu handi bat amatxori.
- **Leo** Bazkaltzeko: letxuak, azak, porruak,...untxi bihurtuko zara.
- **Virgo** Gau majikoa izango da gaurkoa zuretzat. Aprobetxatu!
- **Libra** Ez zaitetz ezkondu. Ez zaizu kome-ni.
- **Scorpio** Depresiorako lagunekin juer-ga zoro bat egitea onena.
- **Sagittarius** Begi onez ikusten zaituzte zure ingurukoek.
- **Capricorn** Belarriak ez badituzu garbitzen nola entzungo duzu ba....
- **Aquarius** Zure amets goxoenak errealitate bihurtzeko bidean daude.
- **Piscis** Ez etsi. Tristura barrearekin sendatzen da.

■ Gurutzegrama


| | | | | | | | |
|----|---|----|----|----|----|----|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | | | | | | | |
| 10 | | | | | | 11 | |
| 12 | | | | 13 | 14 | | |
| 15 | | | 16 | | | | 17 |
| 18 | | 19 | | | | 20 | |
| 21 | | | | | | | |

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1.Kolorea eman.9. Balio-gabetuz,ezeztatuz. 10. Lurrean sartu ahal izateko, mutur batean punta duen makila. 11. Zerbaki erromatarrez 51. 12. Ihardun. 13. Elektrikoki kargaturiko atomoa. 15. (Ald.) Gutxi gorabehera 3,1416 balio du. 16. Bizirik gabeko gorputza. 18. Hamarrena adierazten duen aurritzia. 20. Amerizioa. 21. Bederatzi alde dituen poligono.

Bertikalak 1.Joseba Arregi Arrasateko bake epaileari deitzen diote. 2. Onartzearen ekintza. 3. Azeri. 4. (Ald.) Nafarroako udalerria. 5. Bi magnituderen arteko erlazioa. 6. Kanpo. 7. Hosto handiak eta usaingabe ikusgarriak dituen liliazeoen familiako landarea. 8. Zertxobaitetarako gogo bizia. 14. Txakur. 16. Larruazalaren azpitik haragia estaltzen duen mintza. 17. Fruituez mintzatuz, jana izateko sasoiria heldu dena. 19. Alfabetoko hirugarren letraren izena.

16. Gia. 17. Umio. 19. Ze.
Bertikalak: 1. Karatide. 2. Onarpen. 3. Luki. 4. (Ald.) Eio. 5. Rato. 6. Ar. 7. Tulipan. 8. Uzi. 14. Or.
Horizontalak: 1. Koloreatu. 9. Anulatu. 10. Taket. 11. LT. 12. Art. 13. Ioi. 15. (Ald.) Pl. 16. Gorpu.



**ZUZEN ZUZENEAN
 FABRIKATIK
 ZURE ETXERA**



Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide poligonoa • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75


Asteazkenean Alkatearekin berbetan ATBn

J. M. Loitiren 100 alkate egunak

Aste honetan Jose Mari Loiti jeltzaleak 100 egun bete-ko ditu Arrasateko alkate-tzan. Abuztuaren 7an auke-ratu zuen alkate udalbatzak Xabier Zubizarretaren ordez, sonatua izan zen plenoan. Orduko oihartzunak baretu dira herrian nahiz eta Aretxabaletan egoera beretsua bizi izan den azken egune-tan.

Asteazken honetan, ATBn noiz edo noiz izan ohi den Alkatearekin berbetan saio berezian, Beñardo Kortabariak Jose Mari Loiti elkar-riketatuko du. Alkatearen aulkia Xabier Zubizarreta ez den batek beteko duen lehen-biziko aldia izango da ATBren historian.


Beharbada juxtu horre-gatik interes berezia izan dezake asteazkeneko saioak, herriaren egoeraren balora-zioa beste aho batetik en-



Beñardo Kortabarria.

tzungo delako. Alkate berria-ren hiru hilabete hauen erre-pasoa eta balorazioa egingo

**Alkatearekin
berbetan zuzenean
parte hartzeko:
tel. 77 06 90**



Jose Mari Loiti.

da: Udala eta herria zein ego-eran jaso zituen, orain arte emandako pausoak, oraindik emateko daudenak, gobernu taldeak eskuartean darabiltzan egitasmo nagusienak, aldatu direnak eta aldatuko dire-nak...

Ikus-entzuleek ere alka-teari zuzenean galderak egi-teko aukera izango dute 77 06 90 telefonora deituta.

Arrasate Irratia 107.7 FM

ZAPATUA

9:00 **Albistegia**
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jailarai** haurrendako pro-grama. Maider Errarte eta Belen Aran-barriarekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika kla-sikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olai-zola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi zoro eta zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA

GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Albistegia**
9:30-11:00 **Goizoro**
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Ara-na, Maider Errarte eta Garbiñe Pere-zekin.

Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginiko magazina.

Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.
23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

■ ATBko programazioa

| LARUNBATA, 8 | ASTELEHENA, 10 | ASTEARTEA, 11 | ASTEAZKENA, 12 | OSTEGUNA, 13 | OSTIRALA, 14 |
|---|--|--|--|--|--|
| Asteazken zehar eskai-nitako programa interesgarrien errepikapena | 13:30 Astebete (Errepik.) | 13:30 Mondrasport . (Errepik.) | 13:30 Lotsa barik . (Errepik.) | 13:30 Alkatearekin berbetan . (Errepik.) | 13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.) |
| 13:30 Kukaratxa Motel | 20:00/20:30/21:00 Berriak . <i>Patxi Montero</i> . | 20:00/20:30/21:00 Berriak . | 20:00/20:30 Berriak . | 19:15 Kukaratxa Motel . <i>Unai Iparagirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin</i> . Gaztetxo-ndako lehiaketa umoretsua. | 20:00/20:30/21:00 Berriak . |
| 14:15 Astebete | 21:30 Mondrasport . <i>Itxaro Zubillaga</i> . Asteburuko kirol jardueraren erre-paso zabala, Zal-dibarko futbito txapelketa, gonbidatuak,... eta lehiaketa astelehene-ro. | 21:30 Lotsa barik . <i>Maier Uranga eta Suar Aizpurrekin</i> . Gonbidatua: Unai Iparagirre. | 21:00 Alkatearekin berbetan . <i>Beñardo Kortabariak Jose Mari Loiti alkatea elkarriketatuko du</i> . | 20:00/20:30/21:00 Berriak . | 21:30 Astebete . <i>Patxi Montero</i> . Aste-azken zehar jasotako berrien laburpena eta gai interesgarrien sakontzea. |
| 14:45 Burua astinduz . <i>Eneko Allende</i> . Gonbidatu berezia: Baron Rojo. | | | | 21:30 Kukaratxa Motel . | |



Garagartzako irudi batekin gatoz gaurkoan. 87 urtetik gora pasa dira argazkia atera zen sasoitik eta ondo ikusten denez, itxura erabat desberdina erakusten du Garagartz

auzoak. Liburu batetik aterata dago argazkia, eta horrela deskribatzen zuen orduko Arrasate: "Paisaia izugarrian dago Mondragoe, Deba eta Aramaiona errekek ongarrirituta Santa Barbara mendiskaren magalean, eta Arrambizkar, Muru, Iturriotz edo

Bedoñalarra eta Iturritxipi mendiez inguratuta, itsasoaren 200 metroko mailan. ... Mondragoek 4.706 biztanle ditu, eta ekainaren 24an feria izaten da bertan, Santuaren jaiarekin batera; ganadu feria nagusiak izaten dira abenduaren 21ean eta 22an, eta

hileroko bigarren eta laugarren ostiraletan". Gaur baino ganadu gehiago egongo zen, seguru!

Urtea: 1910
Argazkia eta informazioa:
Album gráfico del Pais
Vascongado

Etxe Aundi

Hotela**  Jatetxea



Torreauzo, 9 • OÑATI • Tel.: 78 19 56 / 78 32 9

errezeta

FOIE TERRINA

OSAGAIK

- Ahate gibela 1.200 kgr.
- Gatza
- Piper zuria
- Intxaur muskatua
- Armagnac-a

PRESTAKETA

- Gibelari kontu handiz zainak kendu.
- Gatz larriarekin (sal gorda), ondu.
- Hozgailuan izotz kubitoekin estalita utzi, 4 orduz (odol arrastoak garbitzeko)
- Piper zuria, intxaur muskatua eta armagnac-a gehitu norberaren gustora.
- Ondo estutako ontzi batetan jarri nahasketa dena.
- Labean 175° tan, 3 minutuz, mari bainutan egosi, edo egosteko labean 80° tara 45 minutuz.
- Behin egosita taula txiki eta pisudun zerbaitekin prentsatu.
- Hozten denean atera ontzitik.
- Ogi xigortuarekin zerbitzatu.



**ESPERIENTZIA ETA EFIKAZIA
EDERTASUNAREN ZERBITZURA**

MASAJISTA OSTEOPATA DIPLOMATUA

- Masaia terapeutikoa
- Kirol masaia
- Osteopatia
- Kinesiologia

Ayer

j.f. lazartigue

CLARINS
PARIS

Lore

L U R R I N D E G I A


HR
HELENA RUBINSTEIN

BIOThERM

KABINA

- Gorputzeko tratamenduak
- Aurpegi tratamenduak
- Drenaje linfatikoa
Vodder Doktoarearen jatorrizko metodoa
- Depilazio elektrikoa
Blend eta Flash metodoak

SOLARIUMa Dutxarekin



Olarte kalea, 10 ■ ARRASATE ■ Tel: 79 52 50

sofa
leku

a. eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03
a. eme. sukaldeak, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
centro hogar muebles, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
sofa leku, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92